

HONDARTZAK

BIZIRIK!



R. Flores ©

¡PLAYAS VIVAS!



cristinaenea
fundazioa

Donostia Inperman Baitaldeak Enaka
Centro de Recursos Medio Ambientales de San Sebastián





Donostia Udalea
Ayuntamiento de San Sebastián






Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Guipúzcoa












ITSASOA GURE ETXEA DA, HEMEN BIZI GARA,
MUNDU ZORAGARRI HONETAN...

BIZITZAZ BETERIK.




JULES VERNE IDAZLEA BEZELAKO PERTSONA GARRANTZITSUEK
BERTAN KOKATU ZITUZTEN BEREN ABENTURAK... ETA MUNDUARI ERAKUTSI ZIOTEN
BERE ABERASTASUNA.




BAKAR BATZUK
AIPATZEARREN!



EDO **JACQUES COUSTEAU**,
IKERLARIAK, IKASI ETA
EZAGUTARAZI ZUENA...



ZENBAT GAUZA ESKAINTZEN
DIZKIE
ITSASOAK?





EGIA ESAN, ITSASOAK GIZAKIARI ESKAINTZEN DION
EZINGO LITZATEKE DIRUZ ORDAINDU!

INOLAZ
ERE!


ETA
OSASUNA...

LANA ETA ELIKAGIAK...

KIROLA...



AISI ALDIA...




BERAZ, ZERGATIK EZ ZAINDU
HORRENBESTE MESEDE
DIZUENA? EGITEN

EZ DUGU TUTIK
ERE
ULERTZEN...

HONDARTZA ETA ITSASOA
BABESTEA DENON
BETEBEHARRA DA.


EZ DA
ZAILA!



...URA ALFERRIK
EZ GALDU...
DUTXAK
HONDARTZATIK
JOATERAKOAN
BAKARRIK
ERABILI.

HONDAKINENTZAKO ZAKARRON-
TZIAK ETA BIRZIKLATZEKO
ONTZI BEREZIAK ERABILI...

**ZABORRA
HEMEN!**



ANIMALIAK LASAI UTZI...



...eta guk, zer egin dezakegu hondartzan?

1 Sortzen dugun hondakin kopurua murriztu, beren tratamenduak diru eta energia asko xahutzen baitu. Berrerabil ditzagun poltsak eta ontziak hondartzara janaria eta edariak eramateko, askoz ere ekonomikoagoa eta ekologikoagoa da.

2 Hondakinak beti zakarrontzira bota. Bereziki kontu handiz joka dezagun neurri txikiko hondakinekin, hala nola zigarro-muturrekin edo izozkien makiltxoekin. Utz ditzagun beti zakarrontzietan, inoiz ere hondarrean.

3 Utz ditzagun ontziak beti hondartzan zehar dauden edukiontzi horietan. Papera eta beira, kabinetako bilketa selektiborako edukiontzietan eta hondartza irteeretan dauden puntu garbietan utz ditzakegu.

4 Dutxa eta iturrietan ez dezagun behar duguna baino ur gehiago erabili. Baliabide mugatua da eta garesti da garraiatzea eta edan-garri bihurtzea, energia eta produktu kimikoak erabili behar baitira. Erabil dezagun itsasoko ura, ur gezaren orde, freskatzeko eta jolasteko.

5 Hondartzetara oinez, bizikletaz edo garraio publikoan joan gaitez.


6 Algak ez dira hondakinak, eta uretan edo ur-ertzean egoteak ez du esan nahi hondartza zikina dagoenik. Alta, itsasoko ekosistemaren protagonista garrantzitsuak dira eta atmosferako CO₂-a jaso eta biltzen laguntzen dute.

7 Hondartzan irratia edo musika entzun nahi badugu, entzun dezagun aurikularrak erabiliz edota zentzuzko bolumen batean.

8 Kabinetan, ez dezagun ur beroko dutxan behar baino denbora gehiago pasa. Ura eta energia aurreztu dezagun.

Hondartzan utziko dugun arrasto bakarra gure oinek hondarretan utziko dutena izan dadila.

asma ezazu zertaz ari garen



1. Itsasoan bizi den arren lurrean erruten duen narrastia, babesteko oskol sendoa duena.

2. Adimen handia duen zetazeoa, kostaldetik gertu bizi dena eta salto haundiak egitea izugarri atsegin duena. Duela urte batzuk, hauetako bat bisitatu gintuen eta Pakito izena jarri genion.

3. Itsas-hegazti haragijale handia, lumadi gris eta txuriduna.

4. Arroketan bizi eta bost hanka pare dituen krustazeoa, elikatzeko eta defendatzeko bi pintza zorrotz dauzka.

5. Babesteko tinta botatzen duen eta zortzi beso dituen molusku zefalopodoa.

6. Itsasertzean bainatzean aurkitu nahi ez zenukeen gorputz flotatzailer koloretsua.

7. Gainazaleko uretan bizi den

krustazeo txikia. Itsaskitegi eta kaie-tako postuetan egosia eros daiteke.

8. Hondarrezko hondoetan lurperatuta bizi den arraina. Arantza pozoitsua duena.

9. Bost beso dituen animalia, hauetako bakar batetik abiatuz birsortzeko ahalmena duena.

10. Perretxiko formako animalia gardena, bere tentakuluek sustantzia erresumingarriak dituzte.

hondartzan aurki ditzazkezun

10 objektu

I	I	T	P	T	X	A	N	K	L	N	Z	N	E
K	Z	L	K	O	L	A	T	U	A	K	U	L	A
E	I	O	N	M	I	O	U	T	H	S	A	F	N
G	G	S	Z	E	B	T	F	Z	R	F	K	L	I
U	A	U	K	K	E	I	U	L	U	G	A	O	T
Z	R	R	E	N	I	D	M	N	H	K	M	T	Z
K	R	F	L	O	T	A	G	A	I	L	U	A	A
L	O	I	I	Z	O	Z	K	E	R	K	E	N	L
A	P	S	K	O	A	O	D	L	N	M	Z	S	K
I	U	T	E	R	L	R	O	S	E	P	O	K	I
N	N	A	T	E	L	E	N	O	A	K	A	K	N
K	T	E	I	O	E	P	R	R	T	N	K	A	A
A	A	G	U	Z	K	R	K	O	E	M	A	T	M
R	N	M	E	A	L	T	I	S	K	I	A	A	O
A	E	H	O	N	D	A	R	R	A	X	T	L	X
S	U	R	S	O	R	O	S	L	T	O	A	Q	U

marraztu gustoko duzun animalia



KOMIKI HAU IRAKURTZEN
BUKATZEN DUZUNEAN, EZ BOTA,
EMAIOZU BESTE LAGUN BATI
BERAK ERE DISFRUTA DEZAN.

Liburuxka hau paper bbirzikatuan inprimatuta dago